

Hitzaurrea

ELERIA aldizkari juridikoaren ale berri honetan, Euskararen Legearen XVII. urteurrena dela eta, 1999ko udan, Eusko Ikaskuntzaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen babesean egin zen mintegian aurkezturiko ponentziak plazaratzen ditugu.

Batek baino gehiagok galdetu digu —eta izan ere ulertzekoa da— Euskararen Legearen gogoetari ekiteko aukeratu dugun urte-kopuruaren zioez: zergatik hamazazpigarren urteurrena eta ez, esate baterako, hamaseigarrena edo hemezortzigarrena?

Urtemugen ospakizuna, zenbaki borobilekin lotu ohi da sarri. Honako edo harako egitate garrantzitsua jazo zenetik hamar urte iragan izana..., gertakari honek edo besteak mende laurdena zein mende osoa bete izana...; traza horietakoak izaten dira gure artean urteurrenen ospakizunik gehientsu enak. Urte-kopuru borobilei edo borobiltzat hartuak izan daitezkeen urte-kopuruei atxikiak.

Baina zenbaki borobilekiko joera horrek, garrantzia gehiago ematen dio iraganiko epeari, ospatu, hausnartu edota ebaluatu nahi den gertakizunari berari baino. Eta ez da hori joera egokia. Errealitate bakoitzak bere beregizko dinamika propioa izanik nekez asmatuko baitu ebaluatzaileak, kasu guztietarako epealdi berdinekin jokatu behar badu.

Euskararen Legearen kasuan, bazegoen 1999. urtean bere emaitzak, hutsak eta lorpenak aztertzeari ekiteko arrazoirik. Legebiltzarrak onetsi zuenetik iraganiko urteek ez zuten, seguru asko, kopuru borobila osatuko, baina nekez uka dezakegu urte hartan, euskararen esparruan behintzat, egoera berri baten etorrera soma zitekeela eta, honekin lotuta, Legearen fruituak ebaluatu beharra nabarmentzen zela zenbait arlotan. Besterik ez bada ere, Legearen edukiak egoera berriari aurpegi emateko egokiak ziren aztertzeko.

Katalunian gertaturikoak, eragin zuzena izan zuen honetan. Hausnarketa sakon eta zorrotz baten ostean Kataluniako Autonomia Erkidegoak hamabost urte luzetan bertako hizkuntza propioaren estatus juridikoa finkatu izan duen arauaren aldaketari ekin dio —hangoa, gurea baino urte bete beranduagokoa zen; 1983koa, alegia— eta hizkuntza politikari ildo berriak zabaltzen dizkion Lege berria onetsi du 1998 urtearen hasieran. izkuntzen egoerak erabat ezberdinak dira Katalunian eta Euskal Herrian. Gauza argia da hori. Baina asko eta askok han egindako gogoetek ez ote zuten gure arterako ere baliorik izango galdetzen zuen.

Euskal Herrian ere bazegoen mugimendurik.

Alde batetik, 1998ko uztailaren 28an, Gobernu Kontseiluak bere egin zuen hilabete lehenago Euskararen Aholku Batzordeak prestatu eta onarturiko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Iniziatiba berria eta Euskal Herrian behintzat, orain arte ezezaguna.

Honen ondoan, 1998ko urtearen beraren amaieran, gizartetik sorturiko Kontseilua izeneko ekimenak ere euskararen sustapenari bultzada berriak emango dizkion Plan estrategikoa iragarten du.

Azkenez, euskalzale aipagarri batzuen artean ere halako hausnarketa beharra somatzen zen. Anjel Lertxundi idazle ezagunak euskalgintzaren inguruko zenbait arlotan berrazterketa sakonaren beharra ikusi eta "Jar gaitezen" aldarrikatu zuen Tolosako Galtzaundin: "Har dezagun larritasunik eta erresuminik gabeko jarrera eraginkorra eta, serio baina patxadaz, has gaitezen hausnarketan. Hitz egin dezagun ditugun kezkez eta nabarmentzen ditugun hutsuneez. Baita frustrazioez ere. Bidera ditzagun ilusioak, kemenak, proiektzioak, perspektibak. Har dezagun etorkizuna aztergai".

Alde askotatik hausnarketarako gonbitea luzatzen zigun testuinguru honek eraginda, Euskararen Legea hartu genuen aztergai, azken hamazazpi urteotan bere magalean gertaturikoak ebaluatzeko asmoz.

Ez noa mintegian aurkezturiko ponentzien baloraziorik egitera. Bakarrik aipatuko dut hausnarketa ahalbideratzea zela gure helburua eta hori, behintzat, lortu zela, eta gai bakoitzean adituak direnen eskutik, gainera. Gogoetaren haritik autokritika ugari azaldu da, baina proposamenak ere bat baino gehiago jarri dira mahai gainean. Zentzuzkoak eta sendo arrazoituak. Bada, orde, bide berriak urratzen ausartu ez denik ere. Horiek guztiak ahalbideratu eta argitara ematearekin agortzen du aldizkari honek bere egitekoa. Hortik gorakoak beste batzuren ardurak dira. Hemen doakie suziria.

Josu Iñaki ERKOREKA GERBASIO
ELERIAko zuzendaria